

Amayur. Nafar abertzaleek bultzatu zuten aldizkaria. (1931-1936)

JESUS PABLO CHUECA INTXUSTA

1931.ko maiatzaren 23 ean nafar abertzaleek astekari berri bat hasi ziren karrikatzen *AMAYUR* izenburua zuena hain zuzen ere. Bera bezalaxe, 1931.ko erregimen errepublikarraren lehen garaietan anitz izan ziren korrante politiko ezberdinek sortarazitako komunikabideak¹. Nafarroan, errate baterako, 1930.ko abenduatik 1932.ko martxoaren bitartean bortz asteroko, *La Republica*, *Trabajadores*, *Amayur*, *La Esperanza*, *Navarra* eta egunkari bat Democracia deitutakoa jaio ziren².

Komunikabideen egundoko ugaltze honek Estatuan garatzen ari zen errealtate informatiboa isladatzen zuen. Europan alderantzizko bilakaera, egunkarien desagertzea eta aldizkarien kontzentrazioa gauzatzen zen unean, Estatu espainolean, berriz, Primo de Riveraren Diktadura eta Monarkiaren porrotek ekarri zituzten ortzemuga politiko berriak zirela medio, komunikabideek izugarritzko garapena izan zuten.

Textuinguru zehatz honetan kokatu behar dugu nafar jeltzaleen bigarren kazeta honen ahalegina. Zeren arras ezaguna denez, 1923.z geroztik Euzko Alderdi Jeltzalearen jarraikideek egunkari bat bait zuten *La Voz de Navarra*, hain zuzen ere³.

Dirudienez, egunkari honen bizitza ez zen oso eroso izan. Batetik, bere hasieretako helburutik, hau da “egunkari haundi bat, denbora gutxi barru Nafarroan gehien banatuko dena, bihurtuko dena” lortzetik oso urrun gelditu zelako. Bere tirada, 3500 ale ingurukoa, *El Pensamiento Navarro* rekin parekatzen ba zen ere, *Diario de Navarra* ri begiratuz askoz murriztagoa gelditu zen. Larriago zen oraindik bere zuzendaritzan izandako aldaketen zerrenda etengabea. *La Voz de Navarra* K iraun zituen 13 urteetan zazpi! zuzendari desberdin izan zituen, E. Esparza, J. Aranzadi, J. Lekaroz, L. Lamas, J. Reta, M. Esparza eta J. Agerre hurrenez hurren⁴.

Hala ere lerrokatze ideologikoari dagokionez ez zen aldaketa haundirik sumatu, nahiz eta Nafarroako euskal nazionalismoaren baitan, Nafar Buru Batzarrean hain zuzen ere, lurralde honetan aldarrikatu behar ziren ardatz politiko-ideologikoen eztabaida asko izan.

1. CHECA GODOY, A., *Prensa y Partidos políticos durante la II República*. Salamanca, 1989.

2. MAJUELO GIL, E., “Prensa y Sociedad en Navarra en la Segunda República” in *Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la guerra civil*. Bilbao 1990, 245-267 orr.

GARCIA SANZ, A., “Los promotores de “Democracia” periódico republicano pamplonés de 1932” in *Príncipe de Viana*, 174, alean, 1985. 93 - 116 orr.

3. OSÉS LARUMBE, E., “La Voz de Navarra, un periódico vasquista” in *Príncipe de Viana*, 184. alean, 425-435 orr.

4. Nafarroako Gobernu Zibilaren Artxiboan. Prentsaren Legajoa.

Dakigunez, nafar jeltzaleen artean, Comunion Nacionalista Vasca eta Partido Nacionalista Vasco ren arteko zatiketak ez zuen ondorioz eragin, alderdi osoa CNVren gelditu bait zen. 1930 ean, ere, Acción Nacionalista Vasca sortu zenean oso jelkide nafar gutxi alde egin zuen erakunde berri honetara. Izan ere 1933. arte ez zen gauzatu Nafarroako ANVren lehen taldexka⁵.

Baina II. Errepublika iristean bizitza politikoaren abiadura biziki azkartuz doa eta ordurarte nafar jeltzaleek prentsa mailan izandako apaltasuna utziz, erronka berri batzuei aurre egiteko, ñabardura eta erantzun garbiagoak azaldu behar zituztela erabaki zuten. Honetarako jaio zen *AMAYUR*.

Astekari hau, lehen aipatu dugun, *La Voz de Navarra* laguntzera zetorren. 1923.ean nafar abertzale batzuk sortutako egunkari hau nazionalismoaren oinarriak nafar foruzaletasun batetik azaltzen saiatzen zen. *Euzkadi* Bizkaiko nazionalistek kale-ratzen zuten egunkaria Euzkadi Buru Batzarrari zuzen eta esplizitoki loturik agertzen zen bitartean, *La Voz de Navarra*-k bere burua independentetzat jotzen zuen eta bere erredakzio taldean nazionalistak izateaz gain errepublikarrak edo tradizionalistak izandakoak biltzen ziren.

Faktore guzti hauek haintzakotzat hartuz zenbait nazionalistek “argi eta garbi” abertzale agertuko zen aldizkari baten beharra antzeman zuten. Horrela II. Errepublika aldarrikatu zenetik Iruñeko abertzaleek burututako lehenengo biltzar orokorrean 1931.eko maiatzaren 10 ean alegia, bertze erabakien artean honako hau hartu zuten: *Astekari abertzale bat karrikaratzea zeren alderdiak ez du eledunik Iruñeko prentsan*.

Honen ondorioz eta oso denbora labur batez, 13 egun bakarrik igaro bait ziren, *Amayur* en lehen alea maiatzaren 23rako plazaratu zuten. Astekari honek iraun zuen bitartean *La Voz de Navarra* ren azpiegitura erabili zuen neurri handi batetan. Zenbait ale, estrainekoak eta 1934/1935ko itxialdiaz geroztikoak hain zuzen ere Torrent Aramendia izena zuen inprimategian argitara eman zuten arren, gehienetan Tipografica Navarran, *La Voz de Navarra* ren inprimategian argitaratu zen.

Aldizkariaren bertze eginbeharrak sustengatzeko hala nola eskutitzak, kolaborazioak, harpidetzen gestioa eta abar Napar Buru Batzarreko idazkaritzan, *Amayur* koek bere egoitza zuten, Zapateria karrikako 50.ean, hain zuzen ere.

Asterokoa karrikartzeko ez zegoen erredaktore talde zehatzik. Zuzendaritza lanak Julio Ruiz de Oyakak ba zeramatzkien ere bertze kolaborazioak jende desberdin anitzek ornitzen zituzten. Napar Burukideekin bat eginik Euskadi osoko artikulak eta idazlanak ailegatzeko zirelarik. Gehienak izengoitiaz sinaturik zeudenez zaila da, gaur egun, guztien benetako nortasuna jakitea. Hala ere erran daiteke ehunetik gorakoa izan zela berriemaile eta aldiz aldiko kolaboratzaileen zerrenda, izengoiti batzuk gizaki berdinari atxikiak izan arren.

Zabalkundeari dagokionez, Nafarroan barrena banatzeaz gain lau lurraldeetako hiriburuetara bidaltzen zen. Tiradaren kopurua 1932.ean Nafarroako Gobernu Zibilak burutu zuen prentsaren estadistikak 3.300 aletan zenbakotu zuen⁶. Zoritxarrez ez dugu zenbaki honen gorabeheren berri baina dirudienez *Amayur* ek ez zituen pairatu bertze komunikabideek jasan zituzten estualdiak.

5. ELORZA, A., *Ideologías del Nacionalismo Vasco*. Donostia, 1978.

DE LA GRANJA, J.L., *Nacionalismo y República en el País Vasco*. Madrid, 1986.

PAYNE STANLEY, G., *El Nacionalismo Vasco. De sus orígenes a la ETA*. Barcelona. 1974.

6. Nafarroako Gobernu Zibilaren Artxiboan. Prentsaren legajoa.

Lehen erran dugun bezala zuzendaritzaren ardura Julio Ruiz de Oyagaren esku zegoen. Honek, editorial anitz idazteaz gain artikulu ugari sinatu zituen J.R., J.R. de O. hizkiekin edo “Mendigoizale”, “Jamin D’Uritz”, eta “Laireta” izengoitiek. Aibar-ko seme honek bere garaietan, politika edota komunikabide mailetan ihardu zuten idazle eta buruzagi anitzen ibilbidea burutu zuen. Bera ere, Eladio Esparza, Jose Agerre, Miguel Esparzaren kasuetan gertatu zen legez ikasketak apezekin egin zituen, irakaspene klasiko sendo baten gizontzat har dezakegarik. Mendizale amorratua, *Euzkottarra* taldea eratu zenean lehenetariko partaide dugu eta *Amayur* en bitartez Bizkaian 1904.z gerotik martxan zegoen Mendigoizaleen erakundea Nafarroan errotzen eta zabaltzen saiatu zen Errepublikako urteetan zehar⁷.

Berarekin batera idazle garrantzitsuena arestian aipatu dugun Jose Agerre “Gurbindo” dugu. Iruñeko politikari honek 1931/1936.ko bitartea igarotzen zen heinean gero eta garrantzi haundiagoa hartu zuen euskal nazionalismoaren bizitza politikoan, gerra iritsi orduko Napar Buru Batzarreko lehendakari eta *La Voz de Navarra* zuzendaria izatera ailegatuz. Bere gaztaroan apaiz ikasketak egin zituen bitartean euskaltzale-etu zen orduko nazionalistek garatzen zituzten aktibitateetan buru belarri sartuz. Euskaldunberri ba zen ere euskera ederki menperatzera iritsi zen eta Euskaltzaindia eratu zutenean 1919.ean berari Kanpionekin batera Nafarroaren eserlekua eskeini zioten. Bere artikulu ugari eta mamitsu *Euzkadi*, *La Voz de Navarra* eta *Amayur* ko orrialdetan kaleratu zituen garai hartako abertzale sutsuenen eritziak defendituz⁸.

Kolaboratzaileen artean ere, oso aipatzekoa da bertze Agerretar bat, Anastasi hain zuzen ere. “Gurbindo”ren anaia, bera bezala euskaldunberri izanik euskeraz eta erderaz bere artikuluak izkiriartzen zituena. Sindicato de Obreros Vascos delakoaren buruzagia zenez, batez ere gizarte arazoaz arduratu zen *Amayur* ko zutabeetan. Tamalez, 1933.ko abuztuan lanera zihoala istripuz hil zen⁹. Ildo honetatik bertze bi solidario nabarmendu ziren beren etengabeko kolaborazioengatik. Bienvenido Cilveti, O.E. hizkiekin sinatzen zuena eta batik bat Felipe de Oñatebia, “El Ferroviario de Oñate” izenordea erabiltzen zuena. Hau izan zen Anastasi Agerrearen ahaleginei lekuko hartu zuen sindikalista eta “Notas Obreras” atalean sarritan azaldu zituen Solidaridaden erreibindikazio eta ikuspuntuak.

Guzti hauez gain tokian tokiko bertze berriemaile batzuek bidaltzen zituzten herrietako albisteak edota gogoeta politikoak aldizkariko orrialdeetara. Bertzeaz bertze maiztasun haundienarekin azaltzen zirenak honako hauek ziren: Tafallatik, Emilio Berreuzo Amorena, Zangotzatik, Sixto Iragi, Sesmatik, Fco. Lopez Garraza, Tuteratik, A. Esparza, eta guztien gainetik euskaldun berriemaile bat, Orreagatik “Menditxuri” gaitxizenaz izkiriartzen zuena.

Nafarroatik kanpoko idazle askok ere parte hartzen zuen asteroko abertzale honetan. Logikoa zenez gehienak EAJren erakundeak loturik zeuden. Hauen artean, 1931.ko abenduan Bilbon antolatu zen “Euzko Idazkaltza Buruba”ren honako partaide hauek, Manu Egileor “Ikasle”, José Luis Irisarri eta batez ere Ceferin de Jemein “Amandarro” gailentzen ziren.

Puntu honekin amaituz erran dezakegu *Amayur* ek oso partaidetza zabala eta anitza lortu zuela eta honen ondorioz Nafarroan sustraiaturik ba zen ere neurri haundi batetan Euskal Herri osoko astekari abertzalea bilakatu zela.

7. ELORZA, A., *Ideología del Nacionalismo Vasco*. Donostia, 1978.

8. CHUECA, J.P., “José Agerre euskaltzale eta abertzale baten oroimenez” in Boletín del Instituto Gerónimo de Ustaritz. 3. 1989.

9. *La Voz de Navarra*, Abuztuaren 2, 1933.

AMAYUR-REN ARDATZ POLITIKO ETA IDEOLOGIKOAK

Astekari hau orokorki azterzerakoan informatibo baino gogoetazkoagoa zela aise antzeman daiteke. Eusko Alderdi Jeltzalearen ekitaldi, mitin eta ekintza guztien erreportai eta kronikak agertzen ziren arren, tokian tokiko albisteak oso murriztak dira gogoetazko artikuluek hartzen zuten hedadura eta lekuarekin gonparatuz. *Amayur*-ek bere burua definitzen zuen erranez “gudaldiko astekaria” zela eta hauxe zen bere egin-behar nagusia jeltzaleen ikuspuntuak zabaldu eta aginte errepublikar ezberdinekin baita bertze alderdi eta aldizkariekin ere eztabaidatu eta borrokatzea¹⁰. Bere estraineko alean aurkezpen gisa honako agurra plazaratzen zuen:

“Amaiur oihuak gure jatorria aldarrikatzen du: Gu euskaldunok gara, iratzarten eta berpizten den euskal herri sendoa, zeinak, bere nortasuna birbirtuz, arimaren indar osoz, bere eskubide guztiak eskatzen dituen eta euskaldun ororen bihotzeraino iritsi eta haiek endaren abantzuraz konturatu arte ez dugu etsiko”¹¹.

Agur honen ondoan nazionalisten programaren zehaztasunak ematen zituzten ezagutzera, lau xede aipatuz: a) *Euskal Herriak Eliza katolikoaren irakaspenak sutsuki jarraitu beharko ditu*. b) *Abazturik dauden usuario eta obitura onak agintzera itzul daitezten, gorde izan direnak berpiztuz eta kanpokoak uxatuz*. c) *Jatorriz Euskalherriko instituzio politiko, juridiko eta ekonomikoak, egungo garaietara moldatuak eraginkorrak izan dezatela*. d) *Euskal nazionalitatearen erakusgarri diren letra eta arteak bizi sendo bat har daitezela*¹².

Helburu orokor hauek esparru politikora egokituz Eusko Alderdi Jeltzaleak Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako biltzar nagusi edo Gorte legegileen berrezartzearen aldeko lana egin behar zela aldarrikatzen zuen. Era berean Iparraldeko lurraldeen egoera oso kontutan hartzen zuten zeren 1839.ko urriaren 25.ko legearen deuseztape-na eskatzeaz gain 1789.ko Frantziar Iraultzaren aginteek plazaratutakoak bertan behe-ra uztea erreibindikatzeko zuten.

Nafarroa, ikusten dugunez, Euskadiko egoera orokorrean sartzen zuten zalantza eta ñabardurik gabe. Eskualde honetan egin behar zen politika, estraineko alearen arabera, Jaungoikoa eta Legezaharrentzaren gauzatu eta bermatzekoa zen. Sabino Aranaren hitzak moldatuz, Nafarrak Nafarroarentzat izan behar zuten, baldin eta hauek eta Nafarroa ere, baita haren lurraldea ere Jaungoikoarentzat izan ezker¹³.

Nafarroako berezko egitura legislatiboa medio, zehaztasun bereziagoa ematen zioten lege zaharrentzaren atalari. Honen arabera benetako forozaletasunak ez zetzan *Nafarroako Jomuga gorena 1839.ko urriaren 25.ko lege zorigaiztoa eta bere ondorioa den 1841.ko abuztuaren 16.koa defenditzen zuten forozaletasun sofistikatu, hebain eta suizidan, lege zaharretan baizik*¹⁴. Honen ondorioz egiazko fueroak suntsitu zituzten 1839 zein 1841.ko legeen deusezta zitzela eskatzen zuten.

Erreferentzi historikoen zama egundokoa zen *Amayur*-en bizitzan. Bere izenburuak, izen bereko mendixkan 1521.ean ehun nafar inguruk Erresumaren independentziaren alde burututako ekintza historikoa gogoerazi zuen. Sabino Aranaren garaietatik historiarekiko zetorren grina *Amayur*-en ere gauzatu zen. Benetako historiagile

10. *Amayur*. 30. Abenduaren, 18. 1931.

11. *Amayur*. 2. Maiatzaren, 23. 1931.

12. *Ibidem*.

13. *Ibidem*.

14. *Amayur*.

gutxik parte hartu ba zuen ere aldizkariaren mota guztietako artikuluetan historian oinarritutako argudioak arras garrantzitsuak izan ziren.

Lehenbiziko alean, errate baterako, 11 artikuluetatik, bederatzik neurri batean edo bertzean aurreko garaietara jotzen zuten beren argudioak indartzeko asmotan. Bizkaiarekin lehen nazionalismoak egin zuen legez, abertzale nafarrek Nafarroaren historiaren irakurketa berria burutu zuten. Haiek hautatutako gertaera edo pasadizoe-tan, Amaiur eta Noainen independentziaren alde gertatutako gatazkak, 1839.ko le-geen arrazoiak eta ondorioak 1841.ko abuztuaren 16.koarenak, eta antzeko abar bate-tan oinarritzen zuten helburu politikoen izatearen funtsa¹⁵.

Eusko Alderdi Jeltzaleak helburu politiko guzti hauek Errepublikako urteetan xede politiko zehatz bati lotu zizkion, Autonomi estatutuaren lorpenari haun zuzen ere. Honegatik hauxe izanen da Amaiuren ardatz politiko garrantzitsuenetako bat. Izan ere alderdi honek foruen berreskurapena eta euskal burujabetasuna goi mailako erreibindikaziotzat jotzen ba zituen, ere Estatutua hauengana burutu beharreko aurre-pausoa zen. “*Askatasun politikoaren aldeko une honetan Euskal nazionalismoaren helmuga ez da Estatutu bat, berreskurapen foral osoa da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren es-tatuen erakundeak ezarritako euskal subirotasuna da. Hau ez den oro irtenbide osagabekoa da. Hala eta guztiz ere gure berreskurapena une historiko bateko gauza bat izango ez denez, egunero aurreratu behar dugu eta honek erran nahi du zatika aurreratu behar dela. Euskadiko egitura politikoa, bere Estatu goragarrietan bermatuko dena ibardunaldi luze honen gunea Estatutua-ren lorpena da. Estatutua da orain dugun posibilitate bakarra. Ez dugu foruen berreskurapen osorik izango baina aurreruntzko urrats bikain bat da*”¹⁶. Hala ere Amayur-ek *La Voz de Navarra* k bezala bertze argudioei eman zion lehentasuna Estatutuaren aldeko kanpai-netan.

Izan ere Nafarroan Estatutuaren eztabaidak piztu zirenean proiektu honen aurka-ko kritikak bertze aldeetatik zetozen. Eredu abertzaleetatik Estatutuaren beharra eta egokitasuna inork ezbaian jartzen ez zuen bitartean, mutur bateko zein bertzeko nafar sektoreak, eskuindar zein errepublikar edota sozialistak ordez, ia ia lehen uneetatik Estatutuaren aurka azaldu ziren. Honen ondorioz eskuinaren aldetik sortzen ari zen Nafarzalekeria eta errepublikarren eta sozialisten zalantza edota ukazio borobilei aurre egin behar zien Amayur ko artikuluek.

Argumentazioaren haria, noski, Gipuzkoa, Bizkaiako aldizkari abertzaleekin gonparatuz ezberdin xamarra zen. Estatutuak ekarriko zituen abantailak, hots, Gor-teak, gobernu, maila guztietako irakaskuntza, ekonomiaren antolaketa, justiziarena eta abar, azpimarratzeaz gain, nafarren eta bertze euskaldunen batasun etnikoa zein parekotasun juridikoa, etengabe, azaltzen zuen¹⁷.

Euskaldun oren leinukotasun amankomun honen ondoan lurralde guztiek Esta-tutuan izango zuten elkarrekiko berdintasun eta begiruneaz aritzen ziren. “*Ez da sortu-ko inoiz Euskadiko inungo lurraldean bertzeen gainean eskualde bateko menpekotasunaren zo-ritzarreko pozoina*”¹⁸. Ildo beretik jarraituz, Nafarroa eta Baskongadak elkarrekin joatea eta Estatu bat osatzeak mesede handia ekarriko luke, honako arrazoi mota ezberdi-nengatik: Estatu berriaren hedadurarengatik, bere berezko izaerarengatik, abantaila

15. Amayur. 23. urriaren, 24, 1931. Ib. 74. urriaren, 22, 1932. Ib. 110 ekainaren, 30, 1933. Ib. 127. urriaren, 27, 1933.

16. Amayur. 32. urtarrilaren, 2, 1932.

17. Amayur. 36. Ib. 44. Ib. 128.

18. Amayur 3. Ekainaren 6, 1931.

ekonomikoak, bereziki Nafarroaren kasuan bere nekazal ondakinak bertze lurraldeetara esportatzeko ahalbidea haunditu egingo delako.

Ez zen mugatu nazionalista nafarren lana Jaungoikoa eta Lege Zaharrak pean zuzen zuzenean sartzen ziren eginbeharretara. Urte hauetan gori gorian zeuden zenbait arazoei erantzunak ematen saiatzen bait ziren. Errate baterako, Errepublikako urteetan Nafarroan bertze leku askotan bezalaxe, langileen arazoak egundoko gaurkotasuna hartu zuen alderdi guztiak nolabaiteko jarrera hartzera behartuz. Euskal abertzaleak ez ziren salbuespen bat eta *Amayur* ko orrialdeak beren eritzien oihartzunak izan ziren.

Hasiera batetan artikulua bakan batzuk agertu ba ziren ere 32. aleaz geroztik, "*Notas Obreras*" edo "*Cuestión Social*" izenburupean, bertze batzuetan editorial gisa ere, langileriaren arazoetaz aritzen ziren *Amayur* kideak. Laburbilduz, bi arloetan bana daitezke sail honetako artikulua: SOV edo *Euzko Langileen Alkartasuna* deitutako elkar-tearen propaganda egiten dutenak eta nekazal arazoa jorratzen aritzen direnak.

Nafarroan bertze lurraldeetan baino beranduxeago gauzatu ba zen ere *ELA* ren garapena, 1931/1936 bitarte hartan agitz ongi errotu zen zenbait hiri eta sektore produktibotan. Erakunde honek eskualdeko aldizkaririk ez zuenez *Amayur*ko orrialdeen bitartez karrikaratu zituen beren mezu eta ideiak. Hasmenta guztietan gertatzen den bezala, erakundearen propaganda eta hedaduraren zabaltzeari ekin zioten, su eta gar, lehen hilabeteetan orduko "solidarioek", behin eta berriro elkarte, horren partaide izatearen premia aldarrikatuz. Sindikalista hauentzat bertze erakundeak kanpotarrak ziren bitartean, SOV zen erakunde kristau eta euskalduna bakarra. Horrela zioten giza arazoari eskeinitako artikulua lehenetarikoa batetan: "*Nora zoaz zure itsudurarekin Nafarroako euskal langilea? Kontuan izan, langile nafarra eta nere arrazaren anaia Nafarroak orain inoiz baino gehiago gure laguntza eta gure arrazaren guztion anai behar duela. Nabi al duzu gure euskal aberriarentzat oparotasunaren aro bat hasi? Beraz ba, sar zaitetz erakunde kristau eta euskaldun den SOVen. Bere baitan elkartu dezakezu Kristoren erlijioa euskal langilearen askapenerako programan dituen erreibindikazioekin*"¹⁹.

SOVen propaganda zuzenarekin batera artikulua ugari kaleratzen ziren sindikatu ezkertiarren politika eta ideologia gaitzetsiz. Hauen kontra luzatzen ziren argudio arbuigarriak bere arrotzkerian zetzaten. *Adi iezadazu arren, lemarik gabe, noraezean eta desbideratua olatu gorrien itxas honetan nabigatzen duzun langile nafarra! Euskalduna zarela-ko, euskaldun guztiak bezalako orbanik gabekoa ¿zergatik zure arrazakoak ez diren eta ez amodio kristaurik ez begirunerik ezta erlijiorik ere ez duten gizakien doktrinek tronpatzen zizutze? ¿Zer izango ginateteke gu geu Euskadi libre batetan baina langileria kanpoko erakundeen pean?*²⁰.

Giza arazoaren baitan ere, artikulua anitzek lurrraren problematikari aurre egin zioten *Amayur*ko orrialdeetan. Alde batetik, Madrilgo Gobernutik zetorren nekazal erreformari buruzko ikuspuntuak eta bertzetik herri lurren arazoari eskualde askotan eman behar zitzaion irtenbideaz mintzatzen zirenak nabarmentzen ziren. Lehen puntuari dagokionez, bere proposamen aldarrikatuena lurralde nafarraren egoerari nekazal erreformaren legea ez zegokiola zen. *Nafarroak lurrraren arazoa mederatua du. Hau bezalako herri bat nun bere hedaduratik % larogeia herri lurrek osatzen dute, lurrraren arazoa konpondurik duen herri bat da*²¹.

19. *Amayur* 47.

20. *Ibidem*.

21. *Amayur* 36. urtarrilaren, 30, 1932.

Dena den nekazarien gehiengoaren errealitatea ez zen hain baikorra. Eta honek akuilaturik Eusko Alderdi Jeltzaleak laborariak plazaratzen zituzten erreibindikapenen aurrean nolabaiteko erantzuna azaldu behar izan zuen. Zentzu honetan Amayur, La Voz de Navarrarekin batera izango da alderdi abertzalearen eritziak isladatuko dituen kazeta.

Hauek herri luraren defentsa sutsua karrikaratu zuten inolako ezbairik gabe. Zegoen propietate amankomunari eustea ez ezik XIX. mendetik zetorren lur jabetze prozesuak atzera egin behar zuen herriei beren ondareko landa eta eremuak itzulieraziz. “Nafarroan herri lurren aldeko joera herrikoi bat dago. Herriko ondaretatik ateratako delata frogatu daiteken lur guztia herrira itzuli behar dela inork ez du zalantzan jartzen”²².

Euskerarekiko atxikimendua oso nabarmena zen Amayurko orrialdeetan bi ideia nagusitzen zirelarik. Alde batetik hizkuntza honek pairatu izan zituen eta baita urte haietan ere jasaten zituen zokoramendu guztien salaketa eta bertzetik mintzaira honen berreskurapenaren beharra.

Astekariaren bigarren alean M. Intxaurrendok sinatzen zuen *Euskera salba dezagun* artikulua zioen: *Guretako, nafarroentzat, gure aintzinako mintzaira euskera da*²³. Hizkuntza honen atzerakadak, Nafarroako bi herenetan desagerturik bait zegoen, ez zuen erran nahi bertze garaietan lurralde osoan mintzatzen ez zenik. Honen lekuko toponimia erabiltzen zuten ondoko pasarte hauek izkiriatur: “*Euskera herri batetik kanporatu zen bakoitzean herri hori menperatzen duen mendi altuenetatik oihu bat jaurtiki zuen eta garraxi honek inguruko aitzekin topatzen zuenean mila oihartzunetan desegiten zen, puxketaka erortzeko, inguruan zeuden herria, iturriak eta lekuak betirako izendatuz. Eta izan hauek oraindik irauten dute eta irauten egingo dute, bain errugabeki berberastua izan den gure milaurteko hizkuntzaren protesta bizian*”²⁴.

Honelako euskeraren aldeko artikulua ugari azaltzen ziren Amayur ren. Batzuek hizkuntza honen aintzinakotasuna isladatzen zuten bitartean, zenbait kasutan egundoko gehiegikerietan eroriz, bertze batzuek historia eta filologiaren laguntzaz mintzaira honen nafartasuna azpimarratzen zuten.

Lekukotasun historikoen ondoan ere, saiatzzen ziren euskeraren gibelamendu prozesuaren zioak aztertzen eta biziki zorrotz jokatzzen zuten bere garaietan bazterkeriaren bat sumatzen zuten bakoitzean. Euskeraren kontrako jokabide maltzur eta salagarria bi giza sektore zehatzetan antzematen zuen Amayurkoek, apezterian eta irakaslegoan, hain zuzen ere. *Askotan entzun ohi dugu euskeraren galera, neurri haundi batetan, apeza eta maixuen errua dela. Nafarroaz aritzen gara. Zoritxarrez egia da eta batzuei mina sortarazi arren, egia erratera goaz zeren horrek ez du inor irainduko. Herri askotan euskeraren desagertaren arrazoiak desberdinak izan dira, baina gure ustez, egiazko errudunak apezak eta irakasleak dira. Azken hauek, nolabait, bertzeak baino errudunagoak*²⁵.

Bere euskeraren aldeko jarrera hau ez zen mugatu, inolaz ere, hizkuntza goraipatzerera. Aldizkarian bertan, Detxeparek euskerarako eskatzen zuen *tornua* ematen saiatu bait ziren, mintzaira honetan kolaborazio eta idazlan aunitz karrikaratu.

Izan ere, Amayurko ale gehienetan, % 83 batetan alegia, euskerazko atal batzuk agertzen ziren. Astekari honen ale ezberdin guztiak begiratur euskera eta erderaren arteko batz bertzeko proportzioa % 6 ean zenbakotu daitekeen arren euskerak eremu

22. *Amayur* 38. Otsailaren, 13, 1932.

23. *Amayur* 2. Maiatzaren, 30, 1931.

24. *Ibidem*.

25. *Amayur* 48. Apirilaren, 23, 1932.

sinbolikoak gainditu zituen esparru guztietara iritsiz²⁶. Textu anitz euskal hizkuntza goraiatzera ba zetorren ere bertze askok edozein mintzairak betetzen dituen funtzio ideologiko zein informatiboa burutzen zuten.

Azken arlo honi dagokionez, noiz behinka herri euskaldun batzuetako berriak azaltzen ziren bertako nazionalistek burutzen zituzten ekitaldietaz edo tokian tokiko bizitza politikoaz mintzatuz. Honez gain, Iruñetik bertatik idazten zen “*Asteko berriak*” deitutako saila aipagarria da erabat. Atal honetan, “Zirt” eta “Irular” izengoitiez idazten zutenek, astez aste, Nafarroako gertaera politikoaren bilakaeraren azterketari ekiten zioten.

Maila ideologikoari so eginez, euskera ere adierazpide egokitzat hartu zuten Amayurko arduradunek orduko erronka eta arazoei aurre egiteko asmoz. Eginbehar honetan, gehien nabarmendu zirenak lehen aipatu dugun Jose Agerre “Gurbindo” eta “Oiantxori” izenordea erabiltzen zuen kolaboratzailea ditugu. Hauek, gero eta ardura garrantzitsuagoa bereganatu zuten Amayur ardatz ideologiko eta politikoak azaltzera-koan, zeren beren idazlanek, orduan gori gorian zeuden gaiak jorratu ez ezik, askotan lehen orrialdearen lehentasuna eskuratu bait zuten.

Amayur-ek egundoko garrantzia eskeini zion Nazionalismoaren baitan garatu zen mendigoizaleen erakundeari. Jakina denez megumendu hau oso loturik egon zen talde nazionalisten bizitzari. Bere sorrera, 1904.ean hain zuzen ere, Bilboko “Juventud Vasca” delakoaren bitartez gauzatu zen hiru talde “Txakur Txiki”, “Ariñ Ariñ” eta “Betikua” sortu zirenean²⁷. Ordutik aurrera hiri haundienetan Nazionalismoa gorpuztu zen heinean talde mendigoizaleak jaiotzen hasi ziren. Nafarroan, lehena eta garrantzitsuen, 1915.ean Iruñean “*Euzkotarra*” izenarekin bermatu zen. Hau izan zen, Primo de Riveraren diktadura bukatu arte, zegoen talde bakarra. Baina erregimen errepublikarrak Nafarroa osoan barrena barreiatu zituen horrelako taldeak. Errate baterako batzuen artean Lizarran *Azkatasuna*, Tafallan, *Mendi Ereta*, Leitzan, *Irrintzi*, eta Agoitzen “*Lenago il*” deitutakoak sortu ziren²⁸.

Elkarte hauen hedapena ez zen aldizkariaren eginbehar zuzen bat baina Amayurko zuzendaria Nafarroako mendigoizaleen erakundeko partaide adierazgarrienetako bat izanik, mendizale hauen ekitaldiek oihartzun zabala eskuratu zuten asteroko orrialdeetan.

Dirudenez mugimendu honek oso egituratze prozesu gorabeheratsua izan zuen urte hauetan. Aldizkariko albisteek behin eta berriro antolaketaren beharra azaltzen dutenez egoera kontrajarria zegoela antzeman dezakegu. Izan ere, hasiera hasieratik, hau da, 10. alean Julio Ruiz de Oyakak “*Mendigoizaleen federakuntza eratzeke ordua iritsi dela*” aldarrikatzen zuen arren ia ia urtebete beranduago, 48. alean, hain zuzen ere oraindik antolatze lanetan daudela jakinerazten zigun.

Amestu zuten Nafarroako mendigoizaleen elkarte hau 1933.ko udan gorpuztu zen sakabanaturik zeuden talde guztiak bilduz. Hau burututakoan, argi eta garbi azaldu zuten nafar mendigoizaleek bere helburuak Amayurko zutabeetan: *Nafarroa mutur batetik bestera, Erribera eta mendialdea zeharkatuko dugu Leitzan, Tuteran, Fitero zein Elizondoko gure anaiei Euskadi aberri bakar baino ez dutela erakutsiz*²⁹.

26. Hau kalkulatzeko zutabea hartu dugu unitate kalkulatzat.

27. *Euzkadi*, Azaroaren, 16, 1921.

28. *Amayur* 145. Martxoaren, 2, 1934.

29. *Amayur*. 111. Uztailaren, 7, 1933.

Dena den “Mendigoizale” atalean agertzen ziren artikuluen arabera aipatutako asmo hau errealitytetik oso urrun gelditu zen. Bizkaia eta Gipuzkoako antzeko taldeen egoera mirestekoa zen bitartean Nafarroakoak ordez kritika anitz sortarazi zituen. *“Lotsaz nabasturiko pena haundi bat sentitzen dugu Nafarroan aipatutako bi lurralde horiekin gonparatzen ba dugu. Dirudienez ez datza gure gazteen artean aberkide hauengan dagoen sentimendu abertzale eta mendigoizalea”*.

Hau bultzatzeko asmoz bertze saio bat eratu zen Amayur-en bitartez, 131 alez geroztik mendigoizalei bereziki eskeinitako orrialde bat argitaratzea, alegia. Atal berri hau irekitzeko Nazionalismoa eta Mendigoizaleen mugimenduaren izen eta zama haundiko gizon pare bat, Luis de Arana Goiri eta Elias Gallastegi “Gudari”en artikulak agertzen ziren.

Dena den, dirudienez, Julio Ruiz de Oyagaren ametsek ez zuten denbora askorik iraun, zeren zenbait aste baranduago mendigoizaleen saila ere, desagertu egin zen eta, nahiz eta 175. alean berriro atal hori berrargitaratzen hasi, mendigoizale elkartearen osasunak ez zirudien oso sendoa. Aldizka mugimendu honetaz, bere etorkizunari buruz bai ala ezezkoaren galderak errepikatzen ziren nolabaiteko ahulezia isladatuz.

BERTZE ALDIZKARIEKIKO HARREMANAK

Ez ziren oso errazak izan Aldizkari abertzaleak bertze aldizkari eta alderdiekin izandako harremanak. Nafarroako bi muturretako sektoreen artean hirugarren bide bat irekitze nahian, Nazionalismoak bai eskuindarrekin baita errepublikar eta ezker-tiarrekin ere, nahi ta nahiez, topo egin behar zuen. Eta hau izan zen prentsa mailan *Amayur*-i gertatu zitzaiona.

Abagadunez abagadune, hari politikoaren arabera polemika eta eraso saminen lekuko izan ziren bere orrialdeak. Horretarako hiru bide erabili ziren. Artikulu zuzenak, bertze egunkari edo aldizkarietan azaldutako informazioen aurka zihoazenak, “Naskaldija”, “Pasando el rato” edo “Casos y Cosas” bezalako ataletan ateratako berri eta gogoeta laburrak eta azkenean, noiz behinka ale ezberdinetan barreiatuak azaltzen ziren “entrefilete” deitutakoak.

Guzti hauek begiratuta aise antzeman daiteke, Amayur-ek bi alde politikoen aurka jotzen zuela. Ezkerrari so eginez aldizkari guztiek, “*República*”, “*Trabajadores*”, “*Democracia*” k beren eraso edo erantzunak jasotzen zituzten. Eskuindarren artean, ordez, “*Diario de Navarra*” izan zen Amayur-en aldetik ostikada behien jaso zituen egunkaria.

Hala ere bikoiztasun honetan, denbora igarotzen zen heinean, nolabaiteko bilakera, euskal nazionalismoak errepublikako urteetan barrena burututakoa, hain zuzen ere, gauzatu zen. Izan ere Alderdi jultzaleak erregimen berriaren lehenengo hilabetee-tan eskuindar alderdiekin burutu zuen koalizioari muzin eginez, pixkanaka pixkanaka, erdialdeko esparru politikora jo zuen ezkertiar eta errepublikarrekin zituen desber-dintasanak bigunduz.

Honen ondorioz eta, batez ere, “*Diario de Navarra*” ren euskal estatutuaren kontrako jarrera gogorra ikusita egunkari hau bihurtu zen Amayureko artikulisten etsai erasotuena.

Dena den, egoera honetara iritsi baino lehenago arestian aipatu ditugun aldizkari errepublikarrekin ere oso kritika zorrotzak eskuratu zituzten. Hau ez zen harritzekoa ze-ren Apirilaren 14.az geroztik, erregimen berria aldarrikatu zenetik, alderdi guztiek propaganda kanpaina eta ekitaldiak antolatzeari, su eta gar, ekin zioten. Hau zela eta, herrietan iskanbila eta tirabira anitz sortu ziren. Gainera EAJ koek tradizionalistekin

batera “Lizarrako koalizioa” osatu zutenean Nafarroan zien bi sektore politikoen arteko lehia nabarmenagoa bilakatu zen.

Hau zela medio, *Amayur* ko zutabeetan, sarritan, bai bertze aldizkariei eta bai buruzagi sozialista zein errepublikarrei, orrialde mingotsak eskeintzen zitzaizkien. Batzutan, errukirik gabeko deskalifikazio zuzenak plazaratzen ziren: “*Tuteran “Hoy” deitzen zen “papelucho indecente” a gosez hil da*” edo honako hau bezalakoa, “*Papelucho autokrata eta zentralista izendatzen den “La República”ren azken alea, ezin da irakurri baserrikerik gabe*”³⁰. Bertze batzuetan, ordez, ironiaz jositako bertso edota gogoeta laburren bitartez Mariano Saenz Morilla, Tiburcio Osacar, C. Dorrnsoro eta bertze buruzagi ezkertiarrek maseitzen zituzten³¹.

Hala eta guztiz ere, *Amayur*-en haserre eta erantzun gehien sortarazi zuten komunikabideek, ez ziren esparru ezkertiarretan kokatzen baizik eta eskuindarren artean. “*El Pensamiento Navarro*” egunkari tradizionalistari egindako kritikien urritasuna nabarmena den bitartean, “*Diario de Navarra*” k, ordea, etengabe, Lizarrako koalizioaren garaietan barne, *Amayur*-ko eraso mindarienak pairatu behar zituen. Jakina denez, egunkari honek euskal nazionalismoarekiko izandako kontrako jarreraz gain, lau lurraldeetako estatutu amankomunaren aurka sutsuki borrokatu zuen.

Hau zela eta, bere oihartzun berezia aurkitu zuten *Diario de Navarra*ren eritziek eta kolaboratzaileek *Amayur*ko ataletan. Asteroko honek karrikan bi hilabete exkas zeramatzkinean honako hauek leporatzen zizkion Raimundo García “Garcilaso”k zuzentzen zuen egunkariari: “*Ez naiz harritzen “Diario de Cantalapiedra” arnas kiraztuak hartzea eta poza aundia sentitzea, Nafar udalen biltzarra ospatzen ez denean. Nafarroa galdu erazteko sortu zen, eta gure udalak desbideratzen dituenean, nahiz eta poziontzea ez lortu, algaraka, farre egiten du*”. Artikulu berean “papelucho antinabarro” deitu ondoren, irakurleei gogoerazi zien Fernando López de Mendoza apezpikuak, egunkari honen kontra bultzatu zuen exkomunioaren prozesua, geroxeago jarraitzeko: “*Perfido papelucho intitulado de Nabarra*”, *Euskal estatutuaren aurka abal duen guztiarekin jotzen duena. Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako proiektuari aurre egin zion, atal erlijiosoa Estatu espainolaren eskuetan gelditzen zelako. Lizarrako biltzarrek Euskal Herriak bere biztanleen arazo erlijiosotaz kontzientzietan agintzek duen eskubidea aldarrikatu zuenean, bertze historia bat asmatuz, Nafar osotasunaren defendatzailetzat aurkeztu zuen bere burua eta hori inolako arren gurarik gabe, zeren, ahobetez, gainontzeko euskal lurraldekiko batasunak gure nortasuna itotzen duela erratan duenean bertze lurralde espainolekin bermatu behar den batasunaren alde dago*”³².

Artikulu honen bukaeran, *Diario de Navarra* ren jokabidea argitzen saiatzen ziren *Amayur*koak egunkari horren zuzendaritzan “*Gaztelako esteparen seme bat*” egoteak lurralde horren alde jokatzeko zekarren. Aldizkari abertzalearen ustez, hauxe zen Zapateria kaleko egunkariari lepora ziezaioketen akats larrienetako bat, Euskal herriko intersekiko adierazten zuen urruntasuna eta arrotzkeria, hain zuzen ere. Hau zela medio deitura bitxi anitz asmatu zuten *Amayur*ko kolaboratzaileek *Diario de Navarra* izendatzeko. Bertzeaz bertze, *Diario de León*, *Diario de Vitigudino*, *Dº de Cuenca*, *Dº Salamanca* o *el Salamanca*, *Diario de Cantalapiedra*... etab. Alderdi edo komunikabide eta buruzagi ezkertiarren kontra idatzitako kritiketan bezala, zuzendari eta erredaktore eskuindarrek, ere, *Amayur*ko zutabeetatik botatako eraso zorrotzak irentsi behar izaten zituzten.

30. *Amayur*, 18. Irailaren, 19, 1931.

31. *Amayur*, 12, abuztuaren zortzi 1931. Ibid. 8, uztailaren, 2, 1931. Ibid. 20, urriaren, 3, 1931. Ibid. 24, urriaren, 31, 1931.

32. *Amayur*, 9. Uztailaren, 18, 1931.

Zentzu honetan, aipaturako Diario de Navarraren zuzendaria zen Raimundo García “Garcilaso”z gain, egunkari bereko erredaktore burua Eladio Esparza izan zen oldar zuzenenak jaso zituen kazetaria. Hau bere gaztaroan euskaltzale gartsua izanik “*La Voz de Navarra*” ren lehendabiziko zuzendaria eta “*Euzkadi*” ko kolaboratzailea izatera heldu zen. Baina 1929.ean “*Diario de Navarra*” ra lan egitera joan zenetik bere ikuspuntu eta eritziak goitik behera aldatu zituen.

AMAYUR ETA JUSTIZIAREKIKO HARREMANAK

Ikusi dugun bezala bertze aldizkari eta kazetariekin izandako eztabaida eta liskarrak makalak ez ziren arren, bertze oztopuak gainditu behar izan zituen Amayur-ek bere bizitza laburrean, agintari zibila eta militarrenak, alegia.

Errepublikaren lege gorena, 1931.ko abenduaren 8.ko konstituzioak, bere 34.garren artikulua bitartez, adierazpen askatasuna aldarrikatzen ba zuen ere bertze lege batzuek, “Errepublikaren defentsarako legea”k eta batez ere “Ordenu Publikoa”renak eskubide hau gauzatze orduan eragozpen anitz ezarri zituzten.

Amayur-ek bere hizkera eta joera kementsuak zirela medio, sarritan lege hauen zama errepresioa pairatu zuen. Astekari honek 1933.ko hasieraz geroztik bere garai latzenak bizi izan zituen. Izan ere, bertze asteroko eta egunkari abertzaleek jasandako errepresioa peto petoan heldu zitzaion Fermin Solozabal gobernadore zibilaren eskutik. Aldizkariaren 87. garren alean kaleratu zuten “La lección del domingo” deitutako artikulua sortarazi zuen lehendabiziko salaketa. Bidea hasita zegoen, zeren ordutik aitzinat, Solozabal iraila arte egon zen bitartean 12¹ aldiz salatua izateaz gain 6 sumario ireiki zizkioten aldizkari abertzaleari.

Honen ondorioz, zuzendaria zen Julio Ruiz de Oyagak aurre egin behar zien epaiketara ezberdinei, zenbait isun eta zigor metatuz. Errate baterako, 1934.rako berak artikulua batetan zioenez hauxek ziren Justiziarekiko zituen zorrak: *2 hilabete eta egun bateko gartzela zigorra, 3 urte eta 6 hilabete eta 21 egun Iruñetik kanpoko erbestea eta 500 ptako. bi isun.*

Zorionez urte hartan Apirilaren 24.ko amnistia zela medio erabat libre gelditu zen. Hala ere, agintera iritsi berriak ziren CEDA eta Alderdi Radikalaren partaideek ez zuten, inolaz ere, Komunikabideekiko jarrera bigundu. Zentsura gogortu egin zen eta euskerazko artikulua oro Gobernu Zibilean beren erderazko itzulpenekin aurkeztu behar izaten zituzten, kaleratzeko baimena jaso zezaten. Honen ondorioz, Amayur-koek erabaki zuten zenbait astetan, protesta gisa, euskeraz deus ez argitaratzea.

Astekariaren aurkako salaketak ugaltu egin ziren 1934.ko Irailean, bi aldiz bahitua izan zelarik. Dena den gogorrena etortzeaz zegoen. Hilabete bat beranduago, Urriko Iraultzarekin batera CEDAkoek langile mugimendu eta indar nazionalistak errepresioaren ikusmira zuzenean jarri bait zituzten.

Urriaren 6.an hain zuzen ere, Gobernadore zibilak, salmenta guneean eta administrazioan gelditzen ziren *Amayur* ko ale guztiak bilduerazi zituen. Horrela argitaratu gabe, hilabete bat terdi egon zen. Hau igaro zeneko, Amayur inprimatzeaz zegoenean berriro galerazi egin zuten, oraingoan Aginte militarrek manaturik.

Hauxe izan zen *Amayur* en bizitzaren arazorik larriena. Julio Ruiz de Oyaga giltzaperatzeaz gain, “ordenu berri bat” jaso arte itxi egin zuten aldizkaria. Ondoria, urte beteko debekua. Zigor honen zioa, ohizko kolaboratzaile donostiarra zen P.S. de Usandek “Voz de la Patria - Nabarra despierta” idatziriko artikulua izan zen.

Artikulu honek argia ikusi ez ba zuen ere, zentsoreak epaitegira bidalitako testua, nun adierazpen salagarrienak azpimarraturik agertzen dira, Nafarroako Gobernu

Zibilaren Artxiboan ikusi dezakegu. Hona hemen zentsoreak hautatu zituen zatiak: Euskadi da *“Haundinabia duten Frantzia eta Espainiaren batzapar traidoreek zanpaturik duten nazionalitatea”*. Geroxeago Nazionalismoak korrante guztien artean edo kontra jorratu behar zuen bidea azaltzen zuen erranez *“Erakunde marxisten ubin nazkagarriaren aurka, bai moralki bai materialki, borrokatu behar dugu. Baita Faszismo odoltsu taldeen aurka ere, Espainiako eskuina gezurjariora eta kalumniazailen kontra, hitz batez Espainia osoaren aurka eta arerio inbasorea garaiturik, askatasuna dastatuko dugu, mundu osoaren arreta erakarriko duen independentziaz jabetuko gara.*

Amaitzeko napar guztiei deitu zien *“Nafarrak zuek zenbait mende aurrerago askatasuna izan zenutenok orain Inperialismo frantziar-espainolaren gatibuak zarete. Nafarroa oihu ezazu zure endaren anaiekin batera !Guda, Guda, Guda etsai inbasoreari! !Gora Nafarroa libre Euskadi askatu baten barne!* ³³

Urte bete bat beranduago 1935.ko azaroaren 30 ean alegia, berriro hasi ziren karrikatzen astekari abertzalea. Bere lehen orrialdean itxialdi luzeaz mintzatzen ziren artikulu batzuk. Bere doinua ez zen beldurrezkoa, alderantzizkoa baizik. Kementsu eta gogo haundiekin 1936.ko hauteskundei eutsi eta gero gerratea lehertu bitarteko hilabeteetan oztopurik gabe atera zen.

33. Nafarroako Gobernu Zibilaren Artxiboa. Prentsaren Legajoa.

BND